

FUNDACIÓN FILMOTECA VASCA - EUSKADIKO FILMATEGIA
FUNDAZIOAREN KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEAK

A. APLIKATZEKO KONTRATAZIO MARKOA

B. ARAUKETA HARMONIZATUARI LOTUTA EZ DAUDEN KONTRATUAK

I. Orokorrean aplikatzeko arauak

1. KONTRATAZIO-ORGANOA
2. KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK
3. KONTRATUAREN ELEMENTUAK
4. KONTRATUAREN PRESTAKETA
5. KONTRATUA EGITEA
6. KONTRATUA BETETZEA

II. Plegua

III. Esleipen prozedurak

1. OBRA KONTRATUAK
2. GAINERAKO KONTRATUAK (HORNIKUNTZA, ZERBITZUAK ETA BESTE BATZUK)

IV. Errekurtsoak

C. ARAUKETA HARMONIZATUARI LOTUTA DAUDEN KONTRATUAK

I. Orokorrean aplikatzeko arauak

1. KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZEN INGURUKO BEREZITASUNAK
2. KONTRATUAREN PRESTAKETA
3. KONTRATUA PERFEKZIONATZEA ETA FORMALIZATZEA

II. Plegua

III. Esleipen prozedura

IV. Errekurtsoak

1. PRESTAKETA ETA ESLEIPENA
2. EFEKTUAK ETA IRAUNGITZEA

D. KONTRATATZAILEAREN PROFILA

I. ERANSKINA

II. ERANSKINA

III. ERANSKINA

FUNDACIÓN FILMOTECA VASCA-EUSKADIKO FILMATEGIA
FUNDAZIOA-REN KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEAK

A. APLIKATZEKO KONTRATAZIO MARKOA

FUNDACIÓN FILMOTECA VASCA - EUSKADIKO FILMATEGIA FUNDAZIOA, aurrerantzean FILMATEGIA, Fundazioa da, eta bere hasierako diru hornidura Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak jarritakoa da, zati berdinetan.

Bere jarduera honako hau da: pelikula eta ikus-entzunezko obren ikerketa, berreskuratzea, artxibatzea, irauaraztea, eta bere kasuan erakustea, izanik hauek orokorrean zinearen eta bereziki euskal zinearen azterketarako interesgarriak, baita ere, zine dokumentazioaren eta material teknikoaren bilketa eta zaintza bere irauaraztea beharrezkoa bada ikuspegi kultural eta historiko batetik, eta era berean orokorrean zinearen eta bereziki euskal zinearen promoziorako eta zabalkuntzarako interesanteak diren egitasmoetan parte hartzea.

Sektore publikoaren kontratuak arautzen dituen urriaren 30eko 30/2007 Legearen arabera (aurrerantzean, SPKL edota Legea), FILMATEGIA **sektore publikoaren** baitan dago –aipatutako Legearen 3.1.d) artikuluan aurreikusitakoaren arabera – eta, Administrazio Publiko bat ez bada ere, betetzen ditu aipatutako Legean **esleipen ahalmena** izateko aurreikusitako baldintzak (Legearen 3.3 artikulua); ondorioz, SPKLn horretarako aurreikusitako xedapenak aplikatuko zaizkio.

FILMATEGIA -k burutzen dituen kontratuak **kontratu pribatuak** dira.

FILMATEGIA k burutzen dituen kontratuak hurrengo kategoriatan sailkatzen dira:

1. **Legeari lotuta ez dauden kontratuak.** Hortaz, ordenamendu juridiko pribatuaren menpe egongo dira edota, bestela, aplikagarri zaizkion arau berezien menpe. SPKLren 4. artikuluan zerrendatutako kontratuak dira (jarraibide hauen I. eranskinean erantsita). **Kontratu horiei ez zaizkie jarraibide hauek aplikatuko.**
2. **Legeari lotutako kontratuak, arauketa harmonizatuaren izaera ez dutenak.** Kontratu guztiak dira, hurrengo kategoriakoak salbu. **Jarraibide hauen B atalean** aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

3. **Legeari lotutako kontratuak, arauketa harmonizatuaren izaera dutenak. Jarraibide hauen C atalean** aurreikusitakoa aplikatuko zaie. Hurrengo kontratuak dira:

- 5.150.000 euroko edo gehiagoko balioa duten obra kontratuak¹.
- 206.000 euroko¹ edo gehiagoko balioa duten hornikuntza kontratuak.
- SPKLren II. Eranskinaren 1. eta 16. kategoria bitartekoetan jasotzen diren zerbitzu kontratuak, 206.000 euroko¹ edo gehiagoko balioa dutenak.

Zenbatekoak BEZik gabekoak dira.

Zenbatekoa edozein dela ere, SPKLren 13.2 artikuluan (jarraibide hauen II. Eranskina) aipatutako kontratuak ez dira inola ere arauketa harmonizatuari lotutako kontratuak, ez eta SPKLren II. Eranskinaren 17. eta 27. kategoria bitartekoetako zerbitzu kontratuak ere.

B. ARAUKETA HARMONIZATUARI LOTUTA EZ DAUDEN KONTRATUAK

Hurrengo kontratuak dira:

- 5.150.000 euro baino gutxiagoko balioa duten obra kontratuak.
- 206.000 euro baino gutxiagoko balioa duten hornikuntza kontratuak.
- SPKLren II. Eranskinaren 1. eta 16. kategoria bitartekoetan jasotzen diren zerbitzu kontratuak, 206.000 euro baino gutxiagoko balioa dutenak.
- SPKLren II. Eranskinean 17. eta 27. kategoria bitartekoetan jasotzen diren zerbitzu kontratuak, eta aipatutako 13.2 artikulua kontratuak, edozein dela haien zenbatekoa.

I. Orokorrean aplikatzeko arauak

1. KONTRATAZIO-ORGANOA

¹ Edota Europako Batzordeak aurrerantzean zehaztuko duen zenbatekoa, SPKLren Hamalagarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren araberakoa.

FILMATEGIaren Estatutuetan eta aplikagarri diren zuzenbide pribatuko arauetan xedatutakoaren arabera eraenduko da kontratatzeko gaitasuna.

Kontratazio organoa honakoa da:

a) 30.000 euroko edo gutxiagoko kontratueterako:

-Zuzendari gerentea.

b) 30.000 euro eta 206.000 euro bitarteko zerbitzu, hornikuntza eta bestelako kontratueterako, eta 5.150.000 euroko edo gutxiagoko obra kontratueterako:

-Fundazioko Patronatuaren presidentea edo presidenteordea

c) 206.000 euro baino gehiagoko zerbitzu, hornikuntza eta bestelako kontratueterako, eta 5.150.000 euro baino gehiagoko obra kontratueterako:

-Fundazioko Patronatua.

2. KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

FILMATEGIarekin kontratuak egin ahal izango dituzte hurrengo baldintzak betetzen eta egiaztatzen dituzten kontratistek:

2.1. Ahalmen baldintzak

Legearen 43. artikuluan aurreikusitakoak dira.

44. artikulua (Erkidegokoak ez diren enpresentzat) eta 45. artikulua (bateragarritasun baldintza bereziei dagokiena) aplikagarri dira.

2.2. Gaitasuna

46. artikulua (pertsona juridikoen gaitasuna), 47. artikulua (Erkidegoko enpresen gaitasuna) eta 48. artikulua (enpresarien elkarteen gaitasuna) eskatutakoa da.

Gaitasuna 61. artikuluaaren arabera egiaztatuko da.

2.3. Kontratatzeko debeku egoeran ez egotea

Kontratatzeko debekuei buruzko 49.1 artikulua eta kontratatzeko debeku egoeran ez daudela frogatzeko moduei buruzko 62. artikulua aplikatzen dira.

2.4. Kaudimeneko gutxieneko baldintzak

Kaudimen ekonomikoaren, finantzarioaren eta teknikoaren gutxieneko baldintzak Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan xedatuko dira, eta honetan aurreikusitakoaren arabera egiaztatuko.

Pleguan, kaudimena frogatzeko aurkeztu beharreko dokumentuak zehaztuko dira, baita aipatutako kaudimen hori egiaztatzen duten gutxieneko atalaseak ere.

Honako artikulua aplikatuko dira: 51. artikulua (kaudimendun izatearen beharra), 52. artikulua (kaudimena kanpoko baliabideekin bateratzea) eta 53. artikulua (kaudimen baldintzak zehaztea).

2.5. Sailkapena

Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan hala aurreikusi denean bakarrik eskatuko da sailkapen administratiboa.

3. KONTRATUAREN ELEMENTUAK

3.1. Kontratuaren objektua

FILMATEGIAk bere xede instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko beharrezkoak zaizkionean egingo ditu kontratuak. Planifikatutako kontratuak aseko dituen beharren izaera eta norainokoa, bai eta haren objektuaren eta edukien egokitasuna xehetasun osoz zehaztuko dira, eta prestakuntza-dokumentazioan hala jasoko da.

Kontratuaren objektua 74. artikuluan xedatutakoa aplikatuta zehaztuko da.

3.2. Kontratuaren iraupena

FILMATEGIAk honako alderdi hauek hartuko ditu kontuan kontratuen iraupena zehazteko: zerbitzuaren izaera, finantzaketaren ezaugarriak eta zerbitzuei dagokienez aldizka lehiaketa antolatzeko beharra. Horretarako, 23. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Luzapenerako aukera Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan aurreikusiko da, berariaz.

50.000 euro baino gutxiagoko obra kontratuek eta 18.000 euro baino gutxiagoko beste edozer kontratuk (BEZik aplikatu gabe), esleipena zuzenean egiten denean, urtebeteko iraupena izango dute gehienez ere, eta ez dute luzatzeko aukerarik izango.

3.3. Prezioa

75. eta 76. artikuluetako arauak aplikatuko dira (kontratuaren prezioaren, balioaren kalkuluaren eta lizitazio aurrekontuaren ingurukoak), dagozkien egokitzapenak eginda, ez baita Administrazio Publiko bat.

Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan hala aurreikusi denean berrikusiko dira prezioak.

4. KONTRATUAREN PRESTAKETA

4.1. Eskaera

Esleipen zuzeneko kasuetan salbu, kontratazio prozesua hasteko, FILMATEGIAren barne langileek jarraibide hauetako III. Eranskinetako inprimakia bete beharko dute. Inprimaki horrek planifikatutako kontratuak aseko dituen beharren izaera eta norainokoa, bai eta haren objektuaren eta edukien egokitasuna jasoko ditu.

4.2. Pleguak

50.000 euro baino gehiagoko obra kontratuen eta 18.000 euro baino gehiagoko beste edozein kontratuen kasuan (BEZa aplikatu gabe), beharrezkoa izango da Klausula ekonomiko-administratiboen plegua gauzatzea.

Aipatutako zenbatekoa gainditzen duten kontratuen kasuan, Klausula ekonomiko-administratiboen pleguarekin batera, Preskripzio teknikoaren plegu bat ere aurkeztu beharko da.

200.000 euroko edo gehiagoko obra kontratuen lizitazioaren kasuetan, eta obra kontratuak ez direnetan zenbatekoa 60.000 euro baino gehiagokoa bada, dagozkien pleguak aztertu egingo dira eta euren gaineko txosten juridikoa egingo da.

Orobat, obra kontratuen kasuan, dagokien Obra Proiektua gauzatuko da, eta horrek Preskripzio teknikoaren plegua ordezkatu ahal izango du.

SPKLren II. eranskinaren 17. eta 27. kategoria bitartekoetako zerbitzu kontratuak, 206.000 eurokoak edo gehiagokoak, 121.1. artikuluan aurreikusitakoari lotuta ere egongo dira.

5. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua idatziz formalizatuko da.

Kontratua zuzenean esleitzen bada, jatorri berekoak direnez gero, kontratua formalizatzeko aski izango da dagokion aurrekontua igortzea eta hura onetsi izana idatziz jakinaraztea.

Kontratuan ez dira, inola ere, pleguetan kontratugileentzat aurreikusitako eskubideak eta betebeharrak ez diren beste batzuk txertatuko; aurkeztutako eskaeraren eta esleipen egintzaren zehaztapenen ostean sortutakoak.

6. KONTRATUA BETETZEA

Gauzatzen diren kontratuak izaera pribatua izango dute, bere prestaketa eta esleipena eraentzen delarik aipaturiko textu legalaren 174 eta 175 artikuluetan funtsezko edukien erregimenean, eta berari dagokion efektuei eta iraungitzeari, zuzenbide pribatuko arauetan.

II. Plegua

Klausula ekonomiko-administratiboen pleguak, prozedura negoziatuaren berezitasunak aintzat hartuta, honako alderdiak zehaztuko ditu:

- Kontratazio organoa.
- Publizitatea, kontratatzailearen profila ezagutzeko modua eta publizitate gastuak.
- Kontratuaren objektua eta, behar denean, loteak.
- Kontratuak aseko dituen beharrak eta aintzat hartu beharreko edozein izaerako faktoreak.
- Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua eta, behar denean, aurrekontuaren urtekako banaketa.
- Kontratu izaerako dokumentazioa.
- Kontratuaren iraupena eta, behar denean, luzapenen zehaztapena.
- Kontratua esleitzeko prozedura: Prozedura irekia, mugatua edo negoziatua.
- Proposamenen aurkezpena:

Aurkezteko modua.

Forma eta edukia (aurkeztu beharreko dokumentazioa).

Aurkezteko epea eta lekua.

- Kontratista:

Gaitasuna.

Ahalmen baldintzak.

Kontratatzeko debekua.

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa (dokumentuak eta gutxienerako atalaseak).

Kaudimen teknikoa eta profesionala (dokumentuak eta gutxienerako atalaseak).

- Ebaluazioa eta esleipena:

Esleipenerako eta haztapenerako irizpideak edota, prozedura negoziatuetan, negoziatzeko alderdiak.

Onetsitako proposamenen irekiera.

Kontratuaren esleipena eta jakinarazpena.

- Esleipendunak aurkeztu beharreko dokumentazioa eta epea.
- Kontratuaren formalizazioa eta epea.
- Kontratugileen eskubideak eta betebeharrak.
- Kontratua jasotzea eta berme epea.
- Prezioa ordaintzeko araubidea.
- Kontratua suntsiarazteko arrazoiak.
- Araubide juridikoa eta jurisdikzioa.

Orobat, Klausula ekonomiko-administratiboen pleguak hurrengo alderdiak ere jaso ahalko ditu:

- Finantzaketa.
- Aldaerak edo hobekuntzak: Baimenduta ote dauden adierazi, bai eta horien betekizunak, mugak, modalitateak eta alderdiak ere.
- Prezioak berrikustea (aplikagarria den formula edo indize ofiziala adieraziz).

- Behin-behineko edota behin betiko bermeak.
- Sailkapena.
- Gaitasun eta kaudimen betekizunen egiaztagirak aztertzeko data.
- Kontratuaren aldaketa: Kontratua aldatzeko aukerarik ba ote den, eta zer baldintzatan egingo litzatekeen.
- Kontratastari ezarritako konfidentzialtasun beharraren hedadura objektiboa eta denborazkoa.
- Lagapena eta azpikontratazioa: Kontratua lagatzeko baldintzak eta kontratastak kontrata ditzakeen prestazioak edo horien portzentaje bat (SPKLren 209.2. c) eta 210.5.artikuluen arabera).
- Atzerapenagatiko eta betetze akastunagatiko zigorrak.
- Ordenamendu juridikoaren kontra ez doan beste edozer itun, klausula eta baldintza.

III. Esleipen prozedurak

SPKLren 175. artikuluan aurreikusitakoa betez, esleipen prozedurak aipatuko dira orain, kontratu motak eta zenbatekoak aintzat hartuta.

Orain xedatuko denari kalterik egin gabe, kontratazio organoak 163. eta 167. bitarteko artikuluetan adierazitako kasuetan heldu ahal izango dio elkarrikketa lehiakorraren prozedurari, eta artikuluko horietan bertan aurreikusitako ondorioekin.

Orobat, kontratazioa arrazionalizatzeko sistemak erabili ahalko ditu (akordio markoak, kontratazio sistema dinamikoak eta kontratazio-zentralak); kasu horretan, 180. eta 189. artikuluko bitartekoetan aurreikusitakoari atxikiko da, arauketa harmonizatuari lotutako kontratuak esleitzeko.

1. OBRA KONTRATUAK

1.1. Zenbatekoen araberrako sailkapena

Obra kontratuari dagokionez, hiru prozedura ezberdin daude, obraren zenbateko ekonomikoaren arabekoak. Hala:

- a) 49.999,99 eurora arteko obra kontratua.
- b) 50.000 euro eta 999.999,99 euro bitarteko obra kontratua.
- c) 1.000.000 euro eta 5.149.999,99 euro bitarteko obra kontratua².

Zenbateko guztiak BEZik gabekoak dira.

1.2. **49.999,99 eurora arteko obra kontratuak**

Kontratu mota hauek, orokorrean, **zuzenean esleituko dira**. Beharrezko aurrekontua lortuko da, FILMATEGIAK onetsiko duena. Ondoren, kontratua onartuko da edo aurrekontuaren idatzizko eta berariazko onespena egingo da, hala jakinaraziz.

Kontratua bete dela egiaztatutakoan, eta kontratistak dagokion faktura aurkeztutakoan eta hori onartutakoan, prezioa ordainduko da.

Ostera, prozedura negoziatua aukeratu ahal izango da, irekia edota mugatua, eta kasu horietan hurrengo atalean xedatutakoa aplikatuko da.

1.3. **50.000 euro eta 999.999,99 euro bitarteko obra kontratua**

Kontratu mota horiek **prozedura negoziatu, ireki edo mugatu** bidez esleituko dira. Aukeratutako prozedura Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan zehaztu beharko da.

1.3.1. **Prozedura negoziatua**

Prozedura negoziatua aukeratzen bada, hurrengo izapideak jarraituko dira:

² Edo Europako Batzordeak aurrerantzean zehaztuko duen zenbatekoa, SPKLren Hamalagarren Xedapen Gehigarrian aurreikusi bezala.

- a) **Eskaera:** Kontratazio eskaera FILMATEGIAko barne langileek bete beharko duten III. eranskineko inprimakiaren bidez egingo da.
- b) **Eskaintzen eskaerak:** Kontratuaren objektua burutzeko gai diren hiru enpresei, gutxienez, eskatuko zaie eskaintza egin dezatela.
- c) **Pleguak:** Klausula ekonomiko-administratiboen plegu bat gauzatuko da (jarraibide hauen B ataleko II. epigrafean aurreikusitako edukiarekin), Preskripzio teknikoen plegu bat, edota dagokion obra proiektua.

Kontratuaren zenbatekoa 200.000 euro baino gehiagokoa bada, dokumentu horiek azertu egingo dira eta euren gaineko txosten juridiko bat burutuko da.

- d) **Publizitatea:** Kontratuaren zenbatekoa 200.000 euro baino gehiagokoa bada, kontratatzailearen profilean argitaratuko dira bere lizitazioa eta esleipena.

Hori dena, atal honetako f) letran aurreikusitakoari kalterik egin gabe.

- e) **Ebaluazioa:** Klausula ekonomiko-administratiboetako pleguan zehaztuko dira enpresekin negoziatuko diren alderdi ekonomiko eta teknikoak.

Kontratuaren zenbatekoa 200.000 euro baino gehiagokoa bada, Klausula ekonomiko-administratiboen pleguak kontratua esleitzeko oinarriztat hartuko diren irizpideak aurreikusi ahalko ditu, eta horrela izanda, hurrengo 1.4.f) atalean horretarako xedatu dena aplikatuko da, prozedura ireki edo mugatuetarako.

Sozietateko langile teknikoek esleipen proposamen arrazoitua aurkeztuko dute. Bertan, adierazi beharko dituzte egindako gonbidapenak, jasotako eskaintzak, eskaintza horiek onartzeko edo baztertzeko arrazoiak, eta egindako negoziazioak.

- f) **Beste aplikazio kasu batzuk:** prozedura negoziatuari heldu ahalko zaio, edozein dela ere kontratuaren zenbatekoa, 154 eta 155. artikuluetako a), b) eta c) ataletan aurreikusitako kontratuen kasuan.

Kasu horietan, 154. artikuluan a) eta b) atalako eta 155. artikuluan a) ataleko kasuetan besterik ez da lizitazioaren iragarkia kontratatzailearen profilean ezagutzera emango.

Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan edo jarraibide hauetan berriaz aurreikusi ez denetan, 153., 160., 161., 162. artikuluetan eta horietatik eratorritako gainerako artikuluetan aurreikusitakoa aplikatuko da, Administrazio Publiko bat ez izateagatik dagozkien egokitzapenak eginda.

1.3.2. **Prozedura irekia edo mugatua**

Prozedura irekia edo mugatua aukeratzeko bada, hurrengo atalean xedatutakoa aplikatuko da.

1.4. **1.000.000 eta 5.149.999,99 eurora bitarteko obra kontratuak**

Kontratu mota hau prozedura ireki edo mugatu baten bidez esleituko da, aukeraturako prozedura Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan agertu beharko dela.

Prozedura irekia zein **mugatua** aukeraturik, hurrengo arauak aplikatuko dira:

- a) **Eskaera:** Eskaera FILMATEGIAko barne langileek bete beharreko III. eranskineko inprimakiaren bidez egingo da.
- b) **Pleguak:** Klausula ekonomiko-administratiboen plegu bat egingo da –jarraibide hauen B ataleko II. epigrafean aurreikusitako edukiarekin–, Preskripzio teknikoaren plegu bat edota dagokion Obra proiektua.

Dokumentu horiek aztertu egingo dira eta euren gaineko txosten juridiko bat burutuko da.

- c) **Publizitatea:** Lizitazioa, gutxienez, kontratatzailearen profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, edo kontratatzailearen profilean eta probintziako egunkari batean. Egindako aukera Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan adieraziko da.

- d) **Proposamenak aurkezteko epea:** Proposamenak aurkezteko epea Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan zehaztuko da. Epea, edonola ere, ez da hogeita sei (26) egun baino laburragoa izango, Kontratazio organoak kontrakoa iritzi ezean, epearen laburpena eragiten duten egoera bereziak direla eta.
- e) **Proposamenak aurkezteko modua:** Proposamenak isilpekoak izango dira eta gutunazal itxietan igorriko dira, Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan xedatzen den moduan egingo da.
- f) **Ebaluazioa:** Kontratazio organoak kontratua esleitzeko eta haztatzeko oinarritzat hartuko diren irizpideak ezarriko ditu, eta iragarkian zein Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan jakinaraziko dira.

Kontratuaren objektuari zuzenki lotutako irizpideei arreta jarri ahalko zaie, hala nola: kalitatea, prezioa, obraren erabilpenari lotutako ordainketak berrikusteko moduak, prestazioa burutzeko edo entregatzeko epea, erabiltzeko prezioa, ingurumen ezaugarriak edo gizartearen eskakizunei lotutakoak, errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetikoak edo funtzionalak, ordezeko piezen eskuragarritasuna eta prezioa, mantentze-lanak, asistentzia teknikoa, saldu ondoko zerbitzua edo antzekoak.

Aurkeztutako proposamenen ebaluazio txosten objektibo bat burutzeaz eta Kontratazio organoari esleipen proposamena aurkezteaz arduratuko den Batzorde baten egituraketa eta ezaugarriak jasoko dira Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan.

Kontratazio organoa ekonomikoki errentagarriena den eskaintzari esleituko dio kontratua, Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan aurreikusitako proposamenak balioztatzeko irizpide objektiboen kontuan hartuta, eta esleipen proposamena agerian.

Kontratazio organoak ez badu kontratua egindako proposamenaren arabera esleitzen, bere erabakia arrazoitu egin beharko du.

Esleipena kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Pleguan edo jarraibide hauetan ez balego berariazko aurreikuspenik, honakoetan aurreikusitakoa aplikatuko da: prozedura irekietarako, 141., 142., 144., (adituen batzorde edo erakunde tekniko espezializatuaren esku hartzearen inguruan aurreikusitakoak ez dira inola ere aplikatzekoak izango) eta 145. artikuluetakoa. prozedura mugatuetarako, 146., 147., 149., 150., 151., 152., artikuluetakoa eta hauetatik eratorritakoa gainontzeko artikuluetakoa. Kasu bietan, Administrazio Publiko bat ez izategatik dagozkien egokitzapenak aintzat hartuko dira.

2. GAINERAKO KONTRATUAK (HORNIKUNTZA, ZERBITZUAK ETA BESTE BATZUK)

2.1. Zenbatekoen arabera sailkapena

Kontratu hauei dagokienez (hornikuntza, zerbitzuak eta beste batzuk), hiru prozedura ezberdin daude, zenbatekoaren arabera. Hala:

- a) 17.999,99 eurora arteko kontratua.
- b) 18.000 eta 99.999,99 euro bitarteko kontratua.
- c) 100.000 euro eta 205.999,99 euro bitarteko hornikuntza eta zerbitzu kontratuak³. Gainerako kontratuetan ez dago zenbateko mugarik.

Zenbateko guztiak BEZik gabeak dira.

2.2. 17.999 eurora arteko kontratuak

Kontratu mota hauek, orokorrean, **zuzenean esleituko dira**. Dagokion aurrekontua jasoko da eta FILMATEGIAk onespena emango dio. Ondoren, kontratua sinatu egingo da edota aurrekontuari idatzizko eta berariazko onespena emango zaio, eta onartu egin dela jakinaraziko da.

Behin kontratua bete dela egiaztatuta, eta kontratistak faktura eta onspena eman ondoren, prezioa ordainduko da.

³ Edo Europako Batzordeak aurrerantzean zehaztuko duen zenbatekoa, SPKLren Hamalagarren Xedapen Gehigarriaren arabera.

Ostera, prozedura negoziatua aukeratu ahal izango da, irekia edota mugatua, eta kasu horietan hurrengo atalean xedatutakoa aplikatuko da.

2.3. 18.000 eta 99.999,99 euro bitarteko kontratuak

Kontratu mota hau **prozedura negoziatu ireki edota mugatu** bidez esleituko da. Aukeratutako prozedura Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan zehaztu beharko da.

2.3.1. Prozedura negoziatua

Prozedura negoziatua aukeratzen bada, hurrengo izapideak jarraituko dira:

- a) **Eskaera:** Kontratazio eskaera FILMATEGIAko barne langileek bete beharko duten III. eranskineko inprimakiaren bidez egingo da.
- b) **Eskaintzen eskaerak:** Kontratuaren objektua burutzeko gai diren hiru enpresei, gutxienez, eskatuko zaie eskaintza egin dezatela.
- c) **Pleguak:** Klausula ekonomiko-administratiboen plegu bat egingo da –jarraibide hauen B ataleko II. epigrafean aurreikusitako edukiarekin– eta Preskripzio teknikoaren plegu bat.

Kontratuaren zenbatekoa 60.000 euro baino gehiagokoa bada, dokumentu horiek aztertu egingo dira eta euren gaineko txosten juridiko bat burutuko da.

- d) **Publizitatea:** Kontratuaren zenbatekoa 60.000 euro baino gehiagokoa bada, bere lizitazioa eta esleipena publikoa egingo da kontratatzailearen profilean.

Hori dena, atal honetako f) letran aurreikusitakoari kalterik egin gabe.

- e) **Ebaluazioa:** Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan zehaztuko dira enpresekin negoziatuko diren alderdi ekonomiko eta teknikoak.

Kontratuaren zenbatekoa 60.000 euro baino gehiagokoa bada, Klausula ekonomiko-administratiboen pleguak kontratua esleitzeko oinarritzat hartuko diren irizpideak aurreikusi ahalko ditu; kasu horretan, hurrengo 2.4.f) atalean horretarako xedatu dena aplikatuko da, prozedura ireki edo mugatuertarako.

Sozietateko langile teknikoek esleipen proposamen arrazoitua aurkeztuko dute, Bertan, adierazi beharko dituzte egindako gonbidapenak, jasotako eskaintzak, eskaintza horiek onartzeko edo baztertzeko arrazoiak eta egindako negoziatioak.

- f) **Beste aplikazio kasu batzuk:** prozedura negoziatuari heldu ahalko zaio, edozein dela kontratuaren zenbatekoa, 154. eta 157. artikuluetako a), b), c), d) eta e) ataletan, 158. artikuluan a), b), c) eta d) ataletan eta 159. artikuluan aurreikusitako kontratuen kasuan.

Kasu horietan, 154. artikuluan a) eta b) ataletako eta 158. artikuluan a) ataleko eta 159. artikuluan (prozedura negoziatua zenbatekoa dela medio aukeratzen denean, eta zenbatekoa 60.000 euro baino gehiagokoa denean) kasuetan besterik ez da lizitazioaren iragarkia kontratatzailearen profilean ezagutzera emango.

Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan edo jarraibide hauetan berriaz aurreikusi ez denetan, 153., 160., 161., 162. artikuluetan eta hauetatik eratorritako gainerako artikuluetan aurreikusitakoa aplikatuko da, Administrazio Publiko bat ez izateagatik dagozkien egokitzapenak eginda.

2.3.2. **Prozedura irekia edo mugatua**

Prozedura irekia edo mugatua aukeratzen bada, hurrengoa atalean xedatutakoa aplikatuko da.

2.4. **100.000 eta 205.999,99 euro bitarteko kontratuak**

Kontratu mota hau **prozedura ireki edo mugatuaren** bidez esleituko da. Aukeratutako prozedura Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan zehaztu beharko da.

Prozedura irekia zein mugatua aukeratuta, hurrengo arauak aplikatuko dira:

- a) **Eskaera:** Eskaera FILMATEGIAko barne langileek bete beharko duten III. eranskineko inprimakiaren bidez egingo da.
- b) **Pleguak:** Klausula ekonomiko-administratiboen plegu bat egingo da (jarraibide hauen B ataleko II. epigrafean aurreikusitako edukiarekin), bai eta Preskripzio teknikoen plegu bat ere.

Dokumentu horiek aztertu egingo dira eta euren gaineko txosten juridiko bat burutuko da.

- c) **Publizitatea:** Lizitazioa, gutxienez, kontratatzailearen profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, edo kontratatzailearen profilean eta probintziako egunkari batean. Egindako aukera Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan adieraziko da.
- d) **Proposamenak aurkezteko epea:** Proposamenak aurkezteko epea Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan aurreikusitakoa izango da. Epea, edonola ere, ez da hamabost (15) egun baino laburragoa izango, Kontratazio organoak kontrakoa iritzi ezean, epearen laburpena eragiten duten egoera bereziak direla eta.
- e) **Proposamenak aurkezteko modua:** Proposamenak isilpekoak izango dira eta gutunazal itxietan igorriko dira, Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan xedatzen den moduan.
- f) **Ebaluazioa:** Kontratazio organoak kontratuaren esleipenerako eta haztapenerako oinarritzat hartuko dituen irizpideak ezarriko ditu, eta iragarkian zein Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan jakinaraziko.

Kontratuaren objektuari zuzenki lotutako irizpideei arreta jarri ahalko zaie, hala nola: kalitatea, prezioa, obraren erabilpenari lotutako ordainketak berrikusteko moduak, prestazioa burutzeko edo entregatzeko epea, erabiltzeko prezioa, ingurumen ezaugarriak edo gizartearen eskakizunei lotutakoak,

errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetikoak edo funtzionalak, ordezeko piezen eskuragarritasuna eta prezioa, mantentze-lanak, asistentzia teknikoa, saldu ondoko zerbitzua edo antzekoak.

Aurkeztutako proposamenei buruzko ebaluazio txosten objektibo bat prestatzeaz eta Kontratazio organoari esleipen proposamena aurkezteaz arduratuko den Batzorde baten egituraketa eta ezaugarriak jasoko dira Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan.

Kontratazio organoak ekonomikoki errentagarriena den eskaintzari esleituko dio kontratua, Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan aurreikusitako proposamenak balioztatzeke irizpide objektiboei jarraiki eta esleipen proposamena aintzat hartuta.

Kontratazio organoak ez badu kontratua egindako proposamenaren arabera esleitzen, bere erabakia arrazoitu egin beharko du.

Esleipena kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Pleguan edo jarraibide hauetan ez balego berariazko aurreikuspenik, honakoetan aurreikusitakoa aplikatuko da: prozedura irekietarako, 141., 142., 144., (adituen batzorde edo erakunde tekniko espezializatuaren esku-hartzearen inguruan aurreikusitakoa ez da inolaz ere aplikatzekoa izango) eta 145. artikuluetakoa. prozedura mugatuetarako, 146., 147., 149., 150., 151., 152., artikuluetakoa eta hauetatik eratorritakoa gainontzeko artikuluetakoa. Kasu bietan, Administrazio Publiko bat ez izateagatik dagozkion egokitzapenak egin beharko dira.

IV. Errekurtsoak

Kontratu hauen prestaketaren, esleipenaren, efektuen, betetzearen edo suntsipenaren inguruan, **jurisdikzio zibilaren** aurrean bakarrik tarteratu ahal izango da errekurtsoa.

Gainera, egindako kontratuen efektuen, betetzearen eta suntsipenaren gaineko desadostasunak ebazteko, **arbitrajera** jotzeko aukera egongo da, abenduaren 23ko 60/2003 Legeko xedapenen arabera. Aukera horrek dagokion Klausula

ekonomiko-administratiboen pleguan jasota egon beharko du eta, halakorik egon ezean, beste edozer kontratu-dokumentutan.

C. ARAUKETA HARMONIZATUARI LOTUTA DAUDEN KONTRATUAK

Hurrengo kontratuak dira:

- 5.150.000 euroko⁴ edo gehiagoko balioa duten obra kontratuak.
- 206.000 euroko⁴ edo gehiagoko balioa duten hornikuntza kontratuak.
- SPKLren II. Eranskinaren 1. eta 16. kategoria bitartekoetan jasotzen diren zerbitzu kontratuak, 206.000 euroko⁴ edo gehiagoko balioa dutenean.

Hori guztia ez da aplikagarri izango 13.2 artikuluko kontratuen kasuan. Edozer dela ere kontratu horien balioa, ez dira arauketa harmonizatuari lotuta egongo.

I. Orokorrean aplikatzeko arauak

Arauaketa harmonizatuari lotuta dauden kontratuei aplikagarri zaie jarraibide hauetako B ataleko I. epigrafean aurreikusitakoa, hots, arauketa harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuei buruzkoa, hurrengo berezitasunekin:

1. KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZEN INGURUKO BEREZITASUNAK

1.1. Gaitasun baldintzei lotutako berezitasunak

43. artikuluan xedatutakoaz gain, aplikagarria izango da 44. artikulua ere –Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Hitzarmena sinatu duten Estatuetakoen enpresek ez dute elkarrekikotasun txostena aurkeztu beharko–.

⁴ Edo Europako Batzordeak aurrerantzean zehaztuko duen zenbatekoa, SPKLren Hamalagarren Xedapen Gehigarriaren arabera.

1.2. Kaudimeneko gutxieneko baldintzei lotutako berezitasunak

Jarraibide hauetako 2.4 ataleko B.I epigrafean xedatutakoaz gain, 63. eta 68. artikulua ere beti aplikatuko dira, kaudimena egiaztatzeke moduei buruzkoak.

1.3. Kalitate bermearen eta ingurumen kudeaketaren arauak betetzea

69. eta 70. artikulua aplikatuko dira, kalitate bermearen eta ingurumen kudeaketaren arauak betetzearen egiaztagirien araberrakoak.

Horretarako aurreikuspenak Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan zehaztuko dira.

2. KONTRATUAREN PRESTAKETA

101. artikuluan ezarritako arauak aplikatuko dira preskripzio teknikoak definitzeko eta ezartzeko.

Orobat, 102. artikuluan (kontratua betetzeko baldintza bereziak), 103. artikuluan (zergei, ingurumenaren babesari, lanari eta lan baldintzei lotutako betebeharren gaineko informazioa) eta 104. artikuluan (Lan kontratuen subrogazio baldintzen inguruko informazioa) xedatutakoa ere aplikatuko da.

Atzeratu ezin den behar bati erantzuteko kontratua burutzea premiazkoa suertatzen bada, edota interes publikoa dela eta esleipena bizkortzea beharrezkoa bada, Kontratazio organoak izapidetze prozesua presazkotzat jo ahal izango du, prestakuntza dokumentazioan behar den moduan arazoituz. Kasu horretan, epeen laburpenari dagokion 96.2.b) artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Edonola ere, Klausula ekonomiko-administratiboen plegua zein Preskripzio teknikoen plegua aztertuko dira, eta euren gaineko txosten juridiko bat burutuko da.

3. KONTRATUA PERFEKZIONATZEA ETA FORMALIZATZEA

Esleipena behin-behinekoa edota behin betikoa izan daiteke; horretarako, 135. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Kontratua behin betiko esleipenaren bidez perfektionatuko da, eta idatziz formalizatuko.

II. Plegua

Klausula ekonomiko-administratiboen pleguak, jarraibide hauetako B ataleko II. epigrafeko aipatutako alderdiez gain, arauketa harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuentzat, honako alderdiak zehaztu ahal izango ditu:

- SPKLren 69. eta 70. artikulua aplikatuko dira, kalitate bermearen eta ingurumen kudeaketaren arauak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoak.
- Kontratua betetzeko baldintza bereziak eta horiek ez betetzearen ondorioak (SPKLren 102. artikuluan aurreikusitako moduan).
- Zergei, ingurumenaren babesari, enpleguari eta lan baldintzei lotutako betebeharren gaineko informazioa (SPKLren 103. artikuluan aurreikusitako moduan).

III. Esleipen prozedura

Arauaketa harmonizatuari lotutako kontratuak SPKLren 174. artikuluan zehaztutakoaren arabera esleituko dira; hau da, Administrazio Publikoen kontratuak esleitzeko aurreikusitako moduan, honako egokitzapenak txertatuta:

- a) Ez da 134. artikuluan 2. atalean xedatutakoa aplikatuko, irizpide subjektiboak balioztatze adituen batzordearen esku-hartzeari buruzkoa.
- b) Ez da 136. artikuluan 1. eta 2. ataletan xedatutakoa aplikatuko, eskaintzen izaera ezohikoa edo neurritz kanpoko den identifikatzeko irizpideei buruzkoa.

- c) Ez da 140. artikuluan xedatutakoa aplikatuko, kontratuen formalizazioari buruzkoa.
- d) Ez da 144. artikuluan xedatutakoa aplikatuko, proposamenen eta esleipen proposamenen azterketari buruzkoa.
- e) Ez da 156. artikuluan xedatutakoa aplikatuko, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak esleitzeko prozedura negoziatuak burutzeko aukera dagoen kasuei buruzkoa.

Presa dela eta, Legeak ezarritako gutxienerako epeak betetzea ezinezkoa bada, 96.2.b) artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da, epeak laburtzeari buruzkoa.

Aurkeztutako proposamenen ebaluazio txosten objektibo bat burutzeaz eta Kontratazio organoari esleipen proposamena aurkezteaz arduratuko den Batzorde baten egituraketa eta ezaugarriak jasoko dira Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan.

Lizitazioa eta esleipena, gutxienez, honako hauetan argitaratuko dira:

- a) Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta 309. artikuluan aipatzen den kontratazio plataforman edo Administrazio Publikoak kudeatutako sistema baliokidean, sozietatea haren menpe egongo den sistema izango dela.
- b) Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean.

Halaber, lizitazio eta behin-behineko eta behin betiko esleipenen iragarkiak kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

IV. Errekurtsoak

1. PRESTAKETA ETA ESLEIPENA

Honakoen aurka tartera daiteke **kontratazio gaietako errekurtsu berezia**: behin-behineko esleipen hitzarmenak, lizitazioa arautzen duten pleguak, prestazioen ezaugarriak ezartzen dituzten pleguak eta izapidetze prozesuak, betiere azken horiek esleipenaren ingurukoak zuzenean edo zeharka ebatzen dituztenean, prozedura eten dezaketenean, edota interes edo eskubide legitimoetan defentsa-gabezia edo kalteak eragin ditzaketenean.

Kontratazio gaietako errekurso berezia Klausula ekonomiko-administratiboen pleguan horretarako ezartzen den Administrazioaren aurrean tarteratuko da eta, betiere, dagokion plegua onartzeko unean Administrazio Kontseiluaren Lehendakaritzan dagoena izango da eskuduna.

Errekurtoa bai FILMATEGIAREN bulegoetan (Antso Jakituna,17-atzekaldea), bai kasu bakoitzean dagokion Administrazioaren Erregistro Orokorrean – aurreko paragrafoan aurreikusitakoarekin bat– aurkez daiteke.

Errekurtoa SPKLren 37. eta 38. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera izapidetuko da.

SPKLren II. Eranskinaren 17. eta 27. kategoria bitartekoetako zerbitzu kontratuen kasuan, edozein dela ere euren zenbatekoa, arauketa harmonizatuari lotuta ez dauden arren, zenbatekoa 206.000 eurokoa edo gehiagokoa denean, kontratazio gaietako errekurso berezia tarteratu ahal izango da horien aurka, baita administrazioarekiko auzi-errekurtoa ere, atal honetan aurreikusitakoaren arabera.

2. EFEKTUAK ETA IRAUNGITZEA

Kontratu hauen efektuen, betetzearen edo suntsipenaren ingurukoaren aurrean, **jurisdikzio zibilaren aurrean** bakarrik tarteratu ahal izango da errekurtoa.

D. KONTRATATZAILEAREN PROFILA

FILMATEGIAK internet bidez ezagutaraziko du bere kontratatzaile profila, bere kontratu-jardueraren gaineko informazioaren gardentasuna eta publizitatea bermatzeko.

Kontratatzailearen profila ezagutzeko modua pleguetan eta lizitazio iragarkietan zehaztuko da, besteak beste.

Kontratatzailearen profila jasoko duen sistema informatikoak informazioa publiko egiten den unea sinesgarritasunez ziurtatuko duen gailu bat izan beharko du.

FILMATEGIAREN kontratatzailearen profilean honako datuak eta informazioa argitaratuko dira:

- a) Kontrataziorako barne jarraibide hauek.

- b) Kontratuen lizitazio iragarkiak, kontratu txikiak eta publizitaterik gabe negoziatu direnak salbu.
- c) Kontratuen esleipena, behin-behinekoa eta behin betikoa, kontratu txikiak eta publizitaterik gabe negoziatu direnak salbu.

Gainera, kontratatzailearen profilean FILMATEGIaren kontratu-jarduerari lotutako edozer informazio edo datu ager daiteke, hala nola: 125. artikulua aurretiazko informazioaren iragarkiak, lizitazio irekiak edo bidean daudenak, haiei buruzko dokumentazioa, programatutako kontratazioak, esleitutako kontratuak, deuseztatutako prozedurak, Kontratazio organoarekin harremanetan jartzeko lekuak eta moduak, etab.

I. ERANSKINA

4. artikulua. Kanpoan utzitako negozioak eta kontratuak

1. Hurrengo negozioak eta harreman juridikoak Lege honetatik kanpo daude:

- a) Funtzionario publikoen zerbitzu harremana eta laneko legerian araututako kontratuak.
- b) Zerbitzu publiko bat erabiltzearen truke erabiltzaileek aplikazio orokorreko tarifa, tasa edo prezio publiko bat ordaintzeari lotutako harreman juridikoak.
- c) Estatuko Administrazio Orokorrak honakoekin burututako lankidetzak-hitzarmenak: Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaile eta zerbitzu orokorrekin, unibertsitate publikoekin, autonomia erkidegoekin, tokiko erakundeekin, erakunde autonomoekin eta gainerako erakunde publikoekin. Edo erakunde eta entitate hauek haien artean burututakoak, bere jatorria dela eta, Lege honi lotutako kontratuen izaera izan ezean.
- d) Administrazioak zuzenbide pribatuari lotutako pertsona fisiko edo juridikoekin burututako hitzarmenak, arautzen dituzten arau espezifikoak aintzat hartuta, baldin eta euren objektua Lege honen arabera edo administrazio-arau berezien arabera araututako kontratuetan jasotzen ez bada.
- e) Europako Erkidegoa Eratzeko Ituneko 296. artikulua eremuan jasotzen diren hitzarmenak, defentsako arloan sinatutako direnak.
- f) Estatuak beste Estatuekin edo nazioarteko zuzenbide publikoko erakundeekin burututako hitzarmenak.
- g) Administrazio publikoen menpe dauden zuzenbide publikoko erakundeek gauzatzen dituzten jardura zuzeneko hornikuntza kontratuak, izaera komertziala, industrial, finantzarioa edo antzekoa izanda, eta horietan aipatzen diren ondasunak ondasunen trafikoko juridikoari itzultzeko asmoz erosi baldin badira, aldatuta edo ez, bakoitzaren helburuen arabera. Erakunde horiek, nolahi ere, Legeak egotzitako eskumen zehatzak burututa jardungo dira.
- h) Nazioarteko hitzarmenen bidez sortutako kontratuak eta hitzarmenak Europako Erkidegoa Eratzeko Itunaren arabera. Hauek Erkidegoz kanpoko lurralde bat edo gehiagorekin burututakoak izango dira eta obra bat batera gauzatzeko edo ustiatzeko hornikuntzei edo obrei lotuta egongo dira, edo proiektu bat batera gauzatzeko edo ustiatzeko zerbitzu kontratuei lotuta.
- i) Nazioarteko hitzarmen bat dela medio burututako kontratuak eta hitzarmenak, tropen kokapenari lotuta.
- j) Nazioarteko erakunde batek ezarritako prozedura zehatz baten bidez esleitutako kontratuak eta hitzarmenak.
- k) Arbitraje eta adiskidetze zerbitzuei lotutako kontratuak.
- l) Balioen edo bestelako finantza-tresnen transferentzia, salerosketa edo igorpenari lotutako

finantza zerbitzuetako kontratuak; finantza-tresna horiek, bereziki, Estatuko finantza kudeaketaren inguruko eragiketak zein sektore publikoaren erakunde eta entitateek funtsak edo kapitala lortzeko eragiketak izango dira, baita Espainiako Bankuak egindako zerbitzuak eta diruzaintza eragiketak ere.

m) Sektore publikoaren erakunde edo entitate batek ondasun edo eskubideak ematera edo zerbitzu bat egitera behartzen duen kontratua. Ondasun edo zerbitzu hauen onuradunak, bere aldetik, Lege honi atxikitako sektore publikoaren erakunde bat bada, ez ditu bere preskripzioak jarraitu behar izango dagokion kontratua burutzeko.

n) Negozio juridikorako prestazio zehatz bat egiteko xedeaz erakunde bat hautatuko da, 24.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, negozioaren tresna propietzat eta zerbitzu teknikitaz hartuko dena. Hala ere, tresna propietzat eta zerbitzu teknikitaz hartzen diren erakunde hauek egotzi zaien prestazioa egiteko burutu behar dituzten kontratuak Lege honi atxikiko dira, behar diren baldintzak betez kontratu mota, zenbatekoa eta burutzen duen erakundea aintzat hartuta. Dena dela, obra, zerbitzu edota hornikuntza kontratuen kasuan, euren zenbatekoek Hasierako Idazpuru honen II. Kapitulua 2. Atalean ezarritako atalaseak gainditzen badituzte, zuzenbide pribatuko erakundeek 121.1. eta 174. artikuluetan ezarritako arauak jarraitu beharko dituzte kontratuok prestatzeko eta esleitzeko orduan.

o) 7. artikuluan definitutako ondasun publikoen inguruko baimenak eta emakidak eta ondare-ondasunak ustiatzeko kontratuak ez diren beste guztiak legeria espezifiko batek arautuko ditu, honako Legea aplikatuko dela berariaz adierazten den kasuetan izan ezik.

p) Ondasun higiezin, balio negoziagarrien eta jabetza ukiezinen gaineko salerosketa, dohaintza, trukaketa, errentamendu kontratuak eta antzeko negozio juridikoak, ordenagailu programen gainekoak izan ezean, horiek zerbitzu edo hornikuntza kontratuak izango liratekeelako, kontratu pribatuen izaera izango lukete eta ondare legeriak arautuko lituzke. Kontratu horietan ez dira Hasierako Idazpuruaren II. Kapitulua 1. Atalean arautzen diren ohiko kontratuetako berezko prestazioak txertatuko, ez badute prestazioen balio estimatuek negozioaren guztizko zenbatekoaren % 50 gainditzen, edo ez badute ondare kontratuaren funtsezko prestazioarekin atxikitze edo osagarritasun harremanik mantentzen, 25. artikuluan aurreikusten den moduan; bi kasu horietan, kontratazio independentea egin beharko da prestaziook kontratatzeko, Legeak ezarritakoari jarraiki.

q) Estatuko ikerketarako erakunde publikoek edo autonomia erkidegoetako antzeko erakundeek burututako zerbitzu eta hornikuntza kontratuak, baldin eta haien prestazioak eta produktuak beharrezkoak diren ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoetarako proiektuetarako edo zerbitzu teknikoetarako, eta proiektu hauen ondorioz lortutako ondorioak zientziari, teknologiari eta industriari lotuta egoteaz gain, trafikiko juridikoan sartzeko aukera badute. Orobat, norgehiagokako lehiaketa bidez aukeratzen den erakundearen ikerketa talde bat arduratu beharko da haietaz.

2. Aurreko atalean zerrendatutako kontratuak, negozioak eta harreman juridikoak bakoitzaren arau berezien arabera eraenduko dira. Honako Legeko printzipioak zalantzak eta hutsuneak argitzeko aplikatuko dira.

II. ERANSKINA

13. artikulua.

2. Aurreko atalean xedatutakoaz gain, ordea, hurrengo kontratuak, edozein dela haien zenbatekoa, ez dira arauketa harmonizatuari lotuta egongo:

a) Irratidifusiorako programen erosketa, garapena, ekoizpena edo koprodukzioa helburu dutenak, irratidifusiorako erakundeek burututakoak direnean. Irratidifusioaren denborari lotutako kontratuak ere bai.

b) Kontratazio organoak guztiz ordaindutako ikerketa eta garapen kontratuak, organo horrek lortutako ondorioak bere jarduera propiorako bakarrik erabiltzen ez baditu.

c) Europako Erkidegoa Eratzeko Ituneko 296. artikulua eremuan jasotzen direnak, defentsako arloan sinatuko direnak.

d) Bereziak edo isilpekoak direnak, edo horiek betetzeko segurtasun neurri bereziak behar dituztenak indarrean dagoen legeriaren arabera, edo Estatuaren segurtasunerako funtsezko interesen babesa eskatzen denetan.

e) Kontratazio organoei telekomunikazio sare publikoak eskueran jartzeko edo ustiatzeko ahalbidetzen dietenak, bai eta biztanleei telekomunikazio zerbitzu bat edo gehiago eskaintzeko ere.

III. ERANSKINA

Entitaearen izena FUNDACIÓN FILMOTECA VASCA- EUSKADIKO FILMATEGIA FUNDAZIOA		KONTRATAZIO ESKAERA			
Eskatzailea		Alorra		Data	
KONTRATUAREN OBJEKTUA ETA KONTRATU MOTA					
ASETZEKO BEHARREN IZAERA ETA NORAINOKOA					
KONTRATUAREN JUSTIFIKAZIOA ETA EGOKITASUNA					
ZEHAZTASUN TEKNIKO INTERESGARRIAK					
GUTXI GORABEHERAKO PREZIOA					
Eskatzailearen arloko zuzendariak ontzat emana			Arlo ekonomikoko zuzendariak ontzat emana		
Izena			Izena		
Data			Data		